

KONTROL MOZIOA

SUSTAPENeko SEXU JAZARPEN ETA SEXUAGATIKO JAZARPENAREN AURKAKO PREBENTZIO ETA JARDUTE PROTOKOLOA DELA ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, kontrol mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko azaroko Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko azaroko Pertsonen Zerbitzu Batzordean, Sexu jazarpen eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako Sustapeneko prebentzio eta jardute Protokoloaren inguruan interpelatu genuenean, lan batzordean lantzen ari zela, Udaleko Berdintasunerako Batzordearekin kontrastatu eta abenduaren 31erako Sustapeneko Hitzarmenarekin batera onartuko zela adierazi zigun Udal Gobernuak.

Martxoan jakin genuenaren arabera, ordea, Hitzarmena luzatu da eta ez da protokolo berria onartu. Hori gutxi balitz bezala, Udaleko Berdintasunerako Batzordearekin kontrastatu ez dela ere jakin dugu.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Udaleko Berdintasunerako Batzordearen maiatzeko bileran Sexu jazarpen eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako Sustapeneko prebentzio eta jardute protokoloaren zirriborroa aurkez dezala eta lantzen has dadila.

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

Naiara Sampedro Perez
EHBilduko Zinegotzia